



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO URRIAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko urriaren 25ean arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Esther Lacastaren lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Santos Etxegia eta Julen Beunza.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai, Ricardo Arangoa eta M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Irailaren 29ko ohiko batzarreko akta da deialdiarekin batera, bildutakoek irakurri ondoren aho batez erabakia hartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak

- 2022/78 alkate ebazpena baimena emanez M^a Jesus Iriarte Labalderi, Aizarotzko herrikoetxeko erabilera anitzetako gela erabiltzekoa, urriaren 1ean, 11:00etatik, aurrera auzokideen bilera bat egiteko.

- 2022/79 alkate ebazpena Baimena emanaz Aintzane Beaumont Etxeberriari, Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia erabiltzeko, ostegunetan 18:00etatik 19:00etara, bere seme alabekin patinajea egiteko.
- 2022/80 alkate ebazpena baimena emanaz Argimalutak Soc. Microcop. elkarteari Aizarozko kultur etxeko areto nagusi erabiltzeko, 2022-2023 ikasturtean, asteartetan 7:00etatik -8:15etara eta ostegunetan 18:30etatik -20:00etara yoga ikastaroa egiteko
- 2022/81 alkate ebazpena Baimena emanaz Nerea Mariezkurrena Ezkurrari Oihanzabal Guraso Elkartearen izenean. Aizarozko kultur etxeko areto nagusi erabiltzeko, urriaren 4an arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara Oihanzabal Guraso Elkarteko bilera bat egiteko.
- 2022/82 alkate ebazpena onartuz Karmele Legarra Iriartek aurkeztutako aitorpen arduratsua Gartzarongo Asuncion 6 Karrikan dagoen eraikineko fatxada eta barruko eskailera margotu eta teilatu hegala barnizatzeke, obraren aurrekontua 18.700 eurokoa da.
- 2022/83 alkate ebazpena Udal honetako zinegotzia den Santos Etxegia Oronozi eskuordetzea Igoa-Arraras Eratsun eta Irurtzun-Basaburua linea elektriko berriaren proiektua gauzatzeko okupazioaren aurretiko aktak egiteko ekitaldia.
- 2022/84 alkate ebazpena Onartzea Ihabengo 3. Poligonoko 324 lursailean haragi behien ustiapenaren iharduera baimena eta lursail berean dagoen simaurtegi eta txekor gunea haunditzeko irekiera baimenaren titularitatea aldatzea, 15657596R NAN zenbakia duen Martina Larrion Arrarasen izenera pasatzea, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Martxoaren 22ko 4/2005 foru legearen 49.4 artikuluari jarraiki.
- 2022/85 alkate ebazpena I-de Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak egindako obra baimena onartuz eta aurkeztutako memoria teknikoa, Berueteko 12. Poligonoko 23. Lursailean dagoen etxebizitzara argi indarraren línea lurperatzeko 5148 euroko aurrekontua izango du obra honek.
- 2022/86 alkate ebazpena baimena emanaz Basaburuko Basandereok elkarteari, Aizarozko kultur etxeko areto nagusi erabiltzeko, azaroaren 6an arratsaldeko 19etatik 21etara feminiziodoen inguruko dokumentala eskeitzeko eta azaroaren 18an ordutegi berdinean emakumeen salerosketen inguruko hitzaldi bat emateko
- 2022/87 alkate ebazpena ez onartzea Aizarozko herrikoetxeko kudeaketa kontratuaren titularitate aldaketa, kontutan hartuz balorazioa egin zenean baldintza administratiboan 7.a baldintzaren balorazioa banatu zela (Giza Baliabideak eta genero irizpideak, 10 puntu gehienez) eta hortaz kontutan hartu zen Aranzazu Prieto Lopez eskatzailea zela eta hortaz emakume izateagatik eman zitzaizkion puntuak.
- 2022/88 alkate ebazpena Basaburuko Udala modu partzialean atxikitzea uztailearen 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako araudiari (Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak gauzatzeko neurriei buruzkoa), eta, horrenbestez, a.2) ataleko merezimendu profesionalen baloraziotik kentzea ("administrazio bereko beste lanpostu batean egindako zerbitzuak: 1,5 puntu urteko"), bai eta derrigorrezkoa ez den hizkuntzaren balorazioa ere (ingeleza, alemana eta frantsesa) 7. klausulako b7 atala ezabatzea).

Alkate ebazpen honen inguruan bildutakoen artean Santos Etxegiak adierazten du ez duela ongi ikusten aipatutako atala ez baloratzea kontutan hartutan Basaburuko udaleko langileen egitura, agian komenigarriagoa dela ez kentzea.

Langileen egonkortze prozesurako deialdiak eta baldintzak aztertu onartu eta argitaratu behar direnez ezohiko batzarra egingo da hurrengo hilabetearen hasieran.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- 2022ko aurrekontua. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du, Abuztuaren 29ko batzarrean onartu zen hasiera batez aurrekontua eta urriaren 3ko NAO on argitaratu zen hasierako onespenerako iragarkia eta urriaren 25eraino jende aurreko epean egon da espedienteak alegazioak jartzeko aukera irekia egonik.

Behin betiko onespena emateko prest legoke aurrekontua, 1990/6 Toki Administrazio Foru Legearen 171. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez onartzen dute 2022ko aurrekontua behin betikoz, onartutako gastuak 1.154.456,72 eurokoak izanik. Erabaki hau eta aurrekontu zehaztua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere adosten dute bildutakoek.

4.- Administrari gastuen banaketa kontzejuen artean. Balorazio irizpideen aldaketa.

Kontzejuen batzordeko ordezkaria den Santos Etxegiak adierazten du kontzejuen bileran adostu zela beste modu batera gastuen banaketa egitea kontutan hartuta ere badaudela kontzeju batzuk ez dutela hitzarmena sinatua udalarekin baina aldizka lan batzuk eskatzen dituzte udaletik egitea eta hauek gehiago ordaintzarekin ados zeuden banaketa hau egiterakoa.

Kontutan hartuta administrariaren soldataren erdia kontzejuak ordaintzen dutela eta beste erdia udalak, lehen egiten zen banaketaren arabera, kopuru finko bat kobratzen zen kontabilitatea egiteagatik, ondoren kontzeju bakoitzean egiten ziren inbertsioengatik 6.000 euro bakoitzeko 18 euro kobratzen zitzairen. Ondoren administrariaren soldatari kentzen zitzaizkion kontabilitatea egiteagatik kobratzen zitzaiena, eta ere inbertsioengatik egin beharreko ekarpena eta soldatetik banatzeko gelditzen zen kopuru hori gastu arrunten ariora banatzen zen.

Orain aldiz, inbertsioen gastuen atala aldatuko da, aldizka hitzarmenean sartuta ez dauden kontzejuak obren esleipenaren kudeaketan udaletik egitea eskatzen badute

ordaindu beharko dute obren aurrekontuaren % 0.15, 450 euroko gutxieneko eta 4500 euroko gehiengo ekarpenen artean.

Aldiz hitzarmenean sartuak dauden kontzejuak % 0.01 ordainduko dute inbertsioen gastuengatik 300 euro eta 3000 euro arteko gutxiengo eta gehiengoaren artean.

Bildutakoek onartzen dute hortaz proposamena eta gastuen banaketa berria modu honetan egitea:

5.- Gartzarongo 6. Poligonoko 6. Lursailerako hiri jarduketarako plan berezia. Behin betiko onespina.

Alkateak azaltzen du nola, 2022ko martxoaren 31eako batzarrean hasiera batez onartu zen aipatutako lursailerako plan berezia. Honen helburua zen etxe bat egiteko lerrokadurak finkatzea. Eskatu zitzaion sustatzaileari metro batzuk gehiago uztea derrigorrezko zesio azalera bezala, horrela kalea zabaltzen zen. Metro hauek uztearekin salbuetsia gelditzen da %10eko ustiapena udalari ematearen derrigortasunaz.

Udal arkitektoaren 22/0057 txostenean eskatzen zitzaion dokumentazio gehigarria aurkeztu du sustatzaileak eta ondoren 22/0371 baiezkotxo txostena egin du. Alkateak irakurtzen ditu txostenaren emaitzak.

2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 72. Artikulua jarraituz behin betiko onespina eman behar diote bildutakoek eta aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betikoz onartzea Gartzarongo 6. Poligonoko 6. Lursailerako hiri jarduketarako plan berezia.**
- **Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

6.- Mozioak.

Azaroaren 25eko Emakumeen Nazioarteko Biolentzia Matxistaren egunaren inguruan adierazpen instituzionala irakurtzen du alkateak, ondoren transkribatzen dena:

TXERTATU MOZIOA WORD FORMATUAN

7- Batzordeen informazioa.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Kontzejuen bilera izan zen, bertan adostu zen kontzejuetan adinduen ariketa fisikoak egiteko elementuak jartzea NGko laguntza baten bidez eskatu direnak, 2022an Beruete eta Igoan jarriko dira eta 2023an Gartzaron eta Arraratsen. Gainera ere elurkentzeko zerbitzuaren inguruan hitz egin zen, aurten ere aurreko urteko pertsona berak egingo du zerbitzua kontzejuen beharren arabera. Bukatzeko ere Arrarats eta Udaben desfibriladoreak jarri direnez beste herrietan ere jartzeko eskaera bideratuko da Osasunbidera.

Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Enduro lasterketa burutu zen eta parte hartzaileengatik balorazio ona jaso da.

Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

8.- Informazio orokorra.

Ez dago.

9. Erreku-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:15 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.